



Eskolako liburutegia.

Irakurtzeko,
idazteko eta
ikasteko
gune bat



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de
Educación y Cultura

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura



Gobierno de Navarra
Departamento de

Liburutegiko sagua

Escolako liburutegia.
Irakurtzeko, idazteko
eta ikasteko gune bat

Argitaratzailea
Nafarroako Gobernuak
Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Egilea
Mariano Coronas

Bildumaren zuzendaritza
Pedagogi Berrikuntzako
Zerbitzuko Dokumentazio Zentroa

Marrazkiak
Asís Bastida

Imprimaketa
Litografía Ipar, S.L.

L. G. NA - 1.374/2000
ISBN 84 - 235 - 2006 - 4

AURKEZPENA

Liburuska honek hasiera ematen dio *Blitz Eskolan* sail berdeari, eta sail honekin batera, *Blitz Hezkuntza Departamentuan* sail urdinak osatzen dute *Eskolako Liburutegiko Bilduma*. *Blitz, liburutegiko saga*.

Bilduma honetan eskolako liburutegia baliabide zentro modernotzat hartzen da, nazio-arteko arauak antolatzen duten erara, euskarri guztietako materialak biltzen dituen (liburuak, CD-ROMak, bideoak, audioak eta abar) eta informazio sare berriei esker kanpo iturrietara iristea ahalbidetzen duena.

Blitz Eskolan lantresna bat da, eskolako liburutegiak egindako jardueren trukea ahalbidetzen duena, eta honez gain irakasleei baliabideak eta ideiak ematen dizkie dinamizazioarako eta irakurzaletasuna sustatzeko. Baina ekintza hauek ez dira era isolatuan planteatzen, baizik eta plan bat edo liburutegiko proiektu pedagogiko bat prestatzearen ondorio gisa, Hezkuntza eta Curriculum Proiektuaren barruan, diziplinarteko talde batek bultzatua, klustroak onetsia eta Eskola Kontseiluak bere egingo duena.

Eskuartean dugun liburuska hau, *Eskolako Liburutegia. Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gune bat*, Fragako Ikastetxe Publikoko profesionalen talde batek egina da. Hango liburutegian urte luzez erabilitako material bilduma da, orain eskuzabal jokatuz, beste profesional talde batzuek erabil dezaten utzi dutena, eskolako liburutegia ikasgunez hartua izan dadin, curriculumeko arlo guztiak aintzat hartuz.

Liburu hau, bestalde, eskolako komunitatearen (ikasleria, irakasleria, familiak, hezkuntzako erakundeak, liburutegi publikoa eta abar.) nahitaezko inplikazioari buruzko gogoeta bat da, elkarlaneko ekintzak egin ditzaten, eskolako liburutegiaren edo ikasgelen bidez irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz.

LOGSE ezarri zenetik, ikastetxeek badute autonomia, lehentasunezkotzat hartzen dituzten jarduketak kudeatzeko, eta gisa honetan kalitatezko irakaskuntza emateko. Baina kalitatea ez da posible eskura ditugun baliabideak ez badira behar bezala erabiltzen, eta baliabide horiek liburutegiak kudeatuz eta zabalduz gero, hezkuntza prozesuan ari diren pertsona guztien eskura egon beharra dute.

Azkenik, sail hau baliagarri izan bedi liburu mundu liluragarrian eta gauzen ikaskuntzan buru belarri, eta edozein euskarritan, diharduten irakasleentzat.

Jesús María Laguna Peña
HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARIA



**Eskolako
liburutegia.**

**Irakurtzeko,
idazteko eta
ikasteko
gune bat**

aurkibidea

1	Atarikoak	5
a	Irakurketa	5
b	Errealitatea	5
c	Eskolako liburutegiaren aukera pedagogikoak	6
d	Irakurtzeko azturari buruzko zenbait gogoeta	6
2	Eskolako liburutegitik abiatutako elkarrekintzak	7
3	Irakurtzera bultzatu... beharrezkoa da eta	9
a	Haurraren eta eskolako liburutegiaren arteko uztardura afektiboa bilatzen duten ekintzak	10
b	Liburutegian ohikoak diren jarduerak	11
c	Kultur sentsibilizazioko ekintzak eta eskola erkidegoa partaide bihurtzeko ekintzak	13
4	Eta idazketa?	14
5	Kultura sustatzeko jarduerak, eskola liburutegitik bultzatuak	16
	Bibliografia	23
	ERANSKINA	26



a. Irakurketa

Irakurtzeak baditu ulergaitz gertatzen zaizkigun alderdiak. Ez dakigu zer-nolako indar izkutuak ote dauden ekintza horren azpian: batzuk irakurle porrokatuak diren bitartean, beste batzuek gorrotatu egiten dute. Jakin ere ez dakigu zergatik irakurtzen dugun zenbait tokitan eta ez beste batzuetan, era berean asko ez dakigu nola pizten zaigun irakurzaletasuna. Gure gurasoak izan dira batzuetan ahozko literaturaren magia transmititu digutenak, eta beste batzuetan, irakasleren bat izango zen, agian, irakurriz eta irakurtzeari buruz mintzatuz liluratu gintuena. Beharbada gertatu zen gaixotasun arin bat zela eta, ohean egon beharrean aurkitu ginela eta orduan hasi ginela irakurketaren mundu liluragarrian murgiltzen. Edo beharbada, lagunen batek noizbait libururen bat utzi zigun edo gerta daiteke tartean debekuren bat izatea, eta honengatik sortu zitzaigun zaletasuna. Edo baliteke haurtzaroan libururik edo liburu gutxi izateak liburu-jakinmina piztu zuela gugan, eta behin betiko uztardura ekarri zigula. Irakurle bakoitzak bere bidea egin du, baina zaila da zehaztea noiz hasi zen edo noiz piztu zen irakurzaletasunari su eman zion txinparta hura. Irakurtzeko ohitura arrazoi izkuten ondorioa da, horregatik zaila da formula zehatzak ematea irakurzaletasuna pizteko eta bultzatzeko.

b. Errealitatea

Ahalegin ugari egin izan dira zenbait ikastetxetan eta hainbat pertsonaren aldetik eskolako liburutegia sortzeko, hala ere, kasu guztietan ahalegin horiek ez dute fruitu emankorrik eman. Honetarako eskaera sozialik ez dago; administrazioek egiten duten ahalegina ez da nahikoa, eta gainera ez dute paratzen horietan funtzionazteko eta bultzatzeko dedikazio osoko langilerik. Liburuek, gainera, erabilera-eskulibururik ez dutenez, entxufatu behar ez direnez eta aspaldi asmatuak izan zirenez, gaztetxoek, gurasoen eta irakasleen artean bere xarma galdu dute eta ez dute berriagoak diren beste baliabide elektronikoen edo ikus-entzunezkoek duten erakargarritasuna.

Esanak esan, eta beti ere salbuespenak salbuespen, esan beharra dugu eskura ditugun baliabideez baliatu behar dugula eskolako liburutegia ikasleen artera eramateko, baina jakinaren gainean, baita ere, beti ez dugula arrakastarik izango. Ezin diogu eskolako liburutegiaren alde lan egiteari utzi, eskolako erakunde honek ezagutza betiko iraunarazten baitu eta herritar berriei helarazi eta hurbildu egiten baitie, baina gure ahalegina inuzentea izan ez dadin, pentsatu behar dugu ez dugula hain erraz irakurzaletasuna piztuko ikasleen artean.

c. Eskolako liburutegiaren aukera pedagogikoak

- Eskolako liburutegiak ikas-baliabideen eta materialen demokratizazioa ahalbidetzen du, bertaraten diren pertsona guztien eskura jartzen baititu.
- Ezberdintasunak berdintzen laguntzen du, etxean hainbeste baliabiderik ez duten neska-mutilen eskura baliabideak uzten dituelako.
- Zibilizazio gunea da, gogoetarako eta ikasteko giro lasaia eskaintzen duelako.
- Lankidetzan ibiltzeko tokia, neska-mutikoez elkarrekin eta elkarren artean denbora, lana eta irakurketak dituztelako.
- Irakurzaletasunaren bultzatzailea da, bertara hurbiltzen diren haurrak behar bezala motibatuta baldin badaude eta gogoz hurbiltzen badira, kontsultak egitera eta gainetik irakurtzera.
- Informazio iturri ezberdinak kontsultatzeko aukera ematen du: liburuak, aldizkariak, prentsa, argitalpen alternatiboak, bideoak, CD-romak, internet, eta abar.
- Ikastetxean egiten diren argitalpen guztiak bertan bildu daitezke: aldizkariak, dosierak, monografiak, liburuxkak eta ikasgeletan prestatutako zeinahi material.
- Ikasi ahal izateko gune ezin hobea da, ikasleak apalategietan eskura dituen materialak erabiliz gero.

d. Irakurtzeko azturari buruzko zenbait gogoeta

- Irakurzale diren edo garen hainbat pertsonaren garaian ez zen etxeetan libururik, eta izan ohi ziren liburuak ez ziren gaur egunekoak bezain erakargarriak.
- Onerako edo txarrerako pertsona horiek ez zuten irakurketa-animaziorik izateko aukerarik izan, izan ere, gaur egun ikasleak irakurtzera bultzatzeko animazio bide eta baliabide anitz ematen dira, baina esan bezala beti ez da horrelakoa izan.
- Irakurtzeko azturak badu irrazionaltasun zati bat, izan ere, badira irakurle mota batzuk porrokatuak eta tinkoak direnak, haien inguruko baldintzak ezin txarragoak izanda ere. Beste batzuen baldintzak, berriz, ezin hobekiak dira, eta hala eta guztiz ere ez dute irakurtzeko ohitura garatzen.
- Haurrak irakurketaren esparrura erakartzea lan zaila da, zeinahi bide ere ez baita erabat eraginkorra; are eta gehiago, zenbait bidek onura baino gehiago kaltea eragiten dute.
- Liburuarekin eta telebistarekin zerbait bitxia gertatzen da. Seguraski inkestek diotena baino gutxiago irakurtzen da, eta telebista ikusi, berriz, dezente gehiago: kontzientzia zorrak izango ote ditugu gezurretan ibiltzeko?
- Ba al dago irakurtzea bezain eraginkorra den tratamendurik? Demagun, bitaminak eta mineralak hartzea; kolesterol tasa edo azido urikoa jaitea; giltzurrin edo behazun harriak kentzea edo artrosia edo erreuma hobetzea; hauetarako guztietarako sarri tratamenduak luze eta konbinatuak behar izaten dira, eta epe luzean bakarrik ikusten dira hobekuntzak. Liburu bakar bat irakurtzea, berriz, aski da zerbait berria ezagutzeko, bizipen berriak sentitzeko eta kultura hobetzeko. Abantaila hauek baitira, ez dago ulertzerik zergatik jendeak zenbaitetan bizkarra ematen dion irakurtzeari, zergatik hurbiltzen den uzkur liburuetara eta zergatik irakurtzeko zaletasuna oraindik ere gure gizartean egiteke dagoen zerbait den.

- Herrialde honetan, Europako herrialdeetan ez bezala, hirurogeigarren hamarkadan jauzi batez telebistaraino iritsi ginen, irakurtzeko ohiturak finkatu gabe, irakurtzeko zaletasunik gabe, irakurtzearen bide irudimentsuak, sortzaileak, hezigarriak, informatiboak eta plazerrezkoak ezagutu gabe, eta liburutegi publikorik gabe. Modu honetan giza-belaunaldi batzuk galdu ziren irakurzaletasunaren aldetik. Gaur egun egoera aldatu da baina egoera oraindik ere nahiko etsigarria da.

2

Eskolako liburutegitik abiatutako elkarrekintzak

Irakurzaletasuna bultzatzeko norberaren ekintzak oso interesgarriak dira eskoletan eta institutuetan, baina lan handia eskatzen dute. Hau dela-eta komenigarria da irakasle talderen bat gogotik tartean sartzea liburutegiaren funtzionamenduari bultz egitea, dena den onena izango litzateke irakasle guztiek parte hartzea.

Mintegi, lan talde... bezala antolatuta dagoen talde horrek aldiro-aldiro bilerak antolatuko eta koordinatuko ditu, eta gisa berean, zenbait neurri bultzatuko eta sustatuko ditu eskolako liburutegiaren funtzionamendua abiarazteko, helburu hauekin: bai gozatzeko bai askotariko dokumentuak kontsultatzeko irakurketa beharrak betetzea; ikasleek aurkez ditzaketen galderari erantzutea; irakasleei denetarikoa baliabideak ematea irakaskuntza aktiboagoa izan dezaten; ikasleei protagonista izaten uztea eta baliabide dokumental guztiak erabil ditzan gaitzea.

Eskolako liburutegiak funtzionatu ahal du eta funtzionatu beharra du armiarma-sare baten erara, irakaskuntzarekin zerikusia duten pertsona guztien bilgunea izan dadin. Liburutegi publikoarekin harremanak izan behar ditu, eta herriak liburutegi publikorik ez badu, herri liburutegiarena egingo du.

Honekin batera doan laukian zehazten dira eskolako liburutegitik ezar daitezkeen elkarrekintzak zeintzuk izan daitezkeen. Zazpi erreferentzi talde definitu dira:

- **Liburutegiaz arduratzen den Mintegia eta Lan Taldea**
- **Ikasleria**
- **Irakasleria**
- **Ikasgelako liburutegiak**
- **Liburutegi publikoa**
- **Gurasoak**
- **Erakunde, kolektibo eta abarrekiko harremanak.**

Horietako bakoitzaren ondoan eskematikoki zehazten da nola ezar daitezkeen harremanak. Zerrenda irekiak dira, zeren eta toki, erkidego eta gizatalde bakoitzak, bere ezaugarrien arabera, bide bat edo beste egingo baitu.

Liburutegiko eta haur literaturako mintegia

- Bere ardurak hauek dira: antolaketa, jarduteko urteko planaren prestaketa eta urteko oroit-idazkia.
- Askotariko materialak prestatzea: karnetak, buletin informatiboak, irakurketa egunkariak, curriculum materialak.
- Autoprestakuntzan lan egitea, bilerak eginez, prentsa espezializatua irakurriz, berariazko liburuak irakurriz, elkartrukeak eginez...
- Erabilera bultzatzeko eta dinamizazioa eta animazioa suspertzeko jarduerak prestatzea.

Irakasleak

- Proiektatzen diren jarduera guztiei buruzko informazioa jasotzen dute.
- Astean ordu bat badaukate, gutxienez, liburutegia bere ikastaldearekin erabiltzeko.
- Proposatzen diren jardueretan parte hartzen dute zuzenean edo zeharka.
- Liburuak eta bildumen erosketak proposatzen dituzte.
- Bere ikastaldearekin erakusketetara joatea eskola ordutegian.
- Multzoka eta aldi baterako eskatzen dituz maileguak, ikasgelara eramateko.

Ikasleak

- Maileguak hartzeko zerbitzua, egunero haien zerbitzura.
- Eguneroko kudeaketaz arduratzen den talde arduratuan parte hartzen dute: fitxatzea, etiketak paratzea, maileguak gauzatzea, maileguak itzultzea...
- Animazio eta dinamizazio jardueretan parte hartzen dute.
- Gelako kontsulta eta irakurketa egin ditzakete.
- Informazio euskarri guztiak erabil ditzakete: liburuak, aldizkariak, egunkariak, CD-romak, bideoak...
- Hiruhileroko buletina eta beste argitalpen batzuk prestatzen laguntzen dute.
- Liburutegian mugitzen ikasten dute, erabiltzaileentzako prestakuntza jardueren bidez.
- "Irakurketa egunkaria" betetzen dute, orduan orduko irakurketak egin ondoren.

Kanpo harremanak

- Argitalpen, material eta esperientzia trukea kolektibo eta erakundeekin.
- Material, liburu, informazio eta abarren eskaerak egiten zaizkie hainbat erakunde eta kolektibori.
- Eginiko esperientzien eta jardueren artikulua-oroitagiriak bidaltzen dira, aldizkari espezializatueta argitaratzeko edo hauen aipamena egiteko.
- Hemerrotekarako dosierak prestatzen dira, urteko prentsa materialak bilduz (liburuei, irakurketari eta liburutegiari buruzkoak).
- Egiten eta esperientzatzen ari dena bai ahoz bai idatziz ezagutarazi egiten da.
- Lankidetzaren harremanak Eskualdeko Irakasle Zentroarekin.

Gurasoak/G.E.

- Hiruhilero liburutegiaren buletina jasotzen dute.
- Erakusketetara joaten dira.
- Mailegu liburuak har ditzakete, ikasleek bezala.
- Aitzariak eta liburuak erosten diruz laguntzen dute.
- Liburutegia zabaltzen dute astean zenbait orduz.
- Aldiro-aldirio irakurketa gidak jasotzen dituzte.

Eskolako liburutegia

Ikasgelako liburutegiak

- Irakasleen bidez eginiko maileguez hezurramitzen dira; multzoka eta aldi baterako hartzen dira, eta liburuak izan daitezke gaikakoak, irakurketa irudimentsukoak, aldizkariak eta abar.
- Maleta bidaiariei esker, fondoak aldi baterako eskaintzen dira; fondo hauek liburu berriak izan daitezke edo gai askotariko liburuak.

Liburutegi publikoa

- Elkarrekin lankidetzara ezartzeko interes nabaria dago: liburutegiaren arteko mailegua. Argitalpen trukea. Elkarrekiko jarduerak. Ikastaldeen ikustaldiak.
- Liburutegi publikoaren zerbitzua ematea, herrian ez badago liburutegirik.

3 Irakurtzera bultzatu... beharrezkoa da eta

Nola bultzatu irakurtzera eskolako liburutegitik? Badirudi aski izango litzatekeela liburutegia existitzea eta zabalik egotea, baina ez da horrelakoa. Gaur egun badago honi buruzko paradoxa bat, azaltzea batere erraza ez dena. Alde batetik, inoiz baino liburu gehiago (onak eta txarrak) argitaratu egiten dira, irudiak ere izugarri zaintzen dira eta honen ondorioz maisu lanak sortu ere bai, eta honenbestez, liburuak merkeak ez badira ere, hiritarrarengandik gertu daude, baita hiritar xumearengandik ere; bestaldetik, jendeak liburuak erosten baditu ere, irakurtzearen indizeak ez dira betegarriak.

Esan ohi da eskola izan daitekeela toki on bat irakurtzeko azturak sustatzeko eta irakurzaletasunaren birusa haurren artean zabaltzeko. Baina ez dugu ahaztu behar familiak baduela eginbehar garrantzitsua, familiaren esku baitago, neurri handi batean, eskolan lor daitekeena.

Ikastaroak antolatzen dira irakasleen prestakuntzarako; eskolako liburutegi batzuk hornitzeko programa jakinak onartzen dira; gurasoei gomendatzen zaie euren seme-alabei irakurtzeko, eta aldi berean, haiek ere irakur dezatela euren seme-alabentzat eredu izan daitezten. Sinposiumak, topaketak, jardunaldiak, kongresuak eta beste foru batzuk antolatzen dira, oraingo egoera aztertzeko eta eztabaidatzeko, hots, belalunaldi gazteek irakurtzeari dioten estimua ikusteko.

Irakurtzea jarduera libre da, indibiduala, irudimentsua, sortzailea, solidarioa, osabidezkoa, intelektuala eta gozagarria. Eta hala eta guztiz ere, irakurtzeari buruzko estatistika datuak nahiko etsigarriak dira gurasoentzat, irakasleriarentzat, argitaletxeetarako, liburu eta liburutegiko profesionalentzat, idazleentzat eta abarrentzat.

Egoera hau konpontzea lan zaila da. Honetan ari garenek, ekimen berriak sortuz liburuaren eta haurren arteko bidea ahalik eta gehien laburtzen saiatzen ari garenek, ez dugu hainbeste ziurtasunik, bai ordea zalantza ugari.

Jarraian, ekintza txikiko eta handiko errepertorio bat eskaintzen da, eskolako liburutegitik edo ikasgeletatik abian jar daitezkeenak. Hauen xedea da liburu eta irakurketa gauza hurbilak balira bezala aurkeztea, haurrek bizipen posibleak bailira ikus ditzaten, eta beraiek nahita liburuen aukeraren alde egin dezaten aisialdia pasatzeko. Jakina denez, ez dira burutu daitezkeen bakarrak, ez dira, halaber, erabat orijinalak, baina frogatuta daude eta gehienak martxan daude gaur egun nire ardurapeko liburutegian.



a. Haurren eta eskolako liburutegiaren arteko uztardura afektiboa bilatzen duten ekintzak

Oroitzapen eta sentsibilizazio ekintzak dira, eta bere xedea haur irakurlea afektiboki bereganatzea da, eta honekin batera elkarrekin uztartzea liburutegiko espazioa eta liburuak eta hurrak. Oso garrantzitsua da nola bideratzen diren ekintza hauek, eta hauen arrakastaren giltzarria da nola bizitzen dituzten ekintzak burutuko dituztenek.

- 1. **Irakurle txartela.** Dokumentu apala eta pertsonalizatua izan daiteke, irakurritako liburu bakoitzaren izenburua eta egilea idazteko tokia izango duena. Gordetzeko eta bilduma egiteko dokumentu txiki bat. Plazer liburuek, kolorezko itsasgarri borobilak (gomets) badituzte, eta bereizgarri hau erabiltzen da liburuak, ikasleen zikloaren arabera, bereizteko; txartelak ere kolore berean egin daitezke, eta era honetan, hurrei erraztasunak ematen dizkiegu (txikieneei, batez ere, liburutegiaren barruan "euren" liburuak aurkitzeko).
- 2. **Eskolako Liburutegiko Adiskideen Klubeko Txartela.** Klub bikain honetako kidea izateko zenbait eginbehar bete behar dira: liburuak ongi zaintzea, liburuak ez desantolatzea, liburutegira maiz joatea, irakurtzea, zer irakurri dugun kontatzea...Zer ez ote genuke egingo lagun baten alde? Arestian deskribatu dugun "irakurle txartela" alternatiba bat izan daiteke, zenbait urte ibiltzen pasa ondoren.
- 3. **Aldiro-aldiro liburutegiko oroitzapen-materialak prestatzea:** itsagarriak, irakurguneak, posterrak, diplomak, "irakurle txartelak" eta abar, hurrek osatzeko, irakurtzeko, koloreztatzeko, gordetzeko... Aipaturiko hauek "Liburutegi" tik bertatik antolatzen diren zenbait jarduerarekin batera ematen diren materialak dira, erakusketaren bat ikustera joatean, jardueraren bat amaitzean...
- 4. **Aldizkako Buletin edo aldizkari baten argitalpena.** Argitalpen honek bilduko ditu liburu berriak, liburutegiari buruzko berriak, kultur berriak eta ikasgelan burutzen diren esperientzien berri emango du. Ikasleari aukera emango dio bertako protagonista izaten: irakurritako liburuei buruzko balorapenak, sormenezko lanak, ikerketa lan txikia eta abar. Garrantzitsua da familia guztienganaino iristea, familiek irakurketari buruz duten iritzia sendotzeko, eta eskolako liburutegiaren funtzionamenduari buruzkoa ere indartzeko, eta ahal delarik, irakurketaz, liburuez eta liburutegiaz sentsibilizazio berezia izan dezaten.
- 5. **Irakurlearen erretratua oparitu.** Gaurko hurrek hainbat argazki gordetzen dituzte, euren bizitzaren momentu ezberdinetakoak, baina seguraski ez da erraza izango argazki horien artean aurkitzea irakurtzen ateratako argazkirik. Urteko liburuaren egunarekin batera, Lehen Hezkuntzako azken kurtsoko hurrei argazki bana oparitu ahal zaie non irakurtzen dauden, eta argazkia kartulina batean txertatuta jar daiteke, irakurtzearekin zerikusia duen testu zatiren bat edo irudiren bat barne, oroigarri gisa gorde dezaten eta bizkorgarri gerta dakien.
- 6. Nork bere **irakurketa egunkaria** betetzea. Dokumentu honen asmoa haur bakoitzak irakurri duena gero ere gogoan izatea da; hurrak bertan irakurritako liburuaren zertzelada laburrak apuntatzen ditu, eta bere haur eta gazte oroigarrien artean jagoten ditu.

- **7. Liburutegiaren aurkezpena.** Ikastalde osoaren ikustaldiak dira, liburutegiko arduradunaren gidaritzapean eginak, eta gidari honen lana izango da ikasleei liburutegiko atal ezberdinak erakustea, eta honekin batera erakustea atal bakoitzaren edukiak, iradokizunak nola jaso, dituen fondoak, dituen aukerak, eta abar. Ekintza hau aldiro-aldiro egitea komenigarria da, neska-mutikoek ezagut ditzaten liburutegiak eskaintzen dituen aukerak.
- **8. Erabiltzaileak prestatzeko jarduerak.** Koadernotxo bat presta dezakegu, non haurrek liburuzainaren laguntzarekin hainbat praktika egin ditzaketen: bibliografi fitxa bat bete, fitxategiak erabiliz fondoan bilaketa, etiketatxoan agertzen diren sinboloen esanahia ikasi eta Saikapen Hamartar Unibertsalako definitutako atalak ezagutu. Jarduera errazak dira, eta oso lagungarriak izango dira liburutegi publikoan hobeto modatzeko. Baditugu eskura beste material batzuk: diapositiba proiektzioa, bideoak ikusi eta abar, lagungarriak direnak.
- **9. Goi kurtsoetako haurrei aukera ematea liburuzain lanetan jardun dezaten:** fondoak ordenatu, maileguak formalizatu, liburuak itzuli, haurrei orientabideak eman, zenbait jardueratan lagundu... modu honetan, erantzukizun bat bere gain hartzeko aukera ematen zaie, eta lan honen bidez haiek liburutegia ezagutarazten dute eta bere ikaskideei zerbitzu bat eskaintzen diete aldi jakin batez.
- **10. Gaikako irakurketa gidak prestatu.** Honelakoak presta daitezke kultur urteurren jakin bat dela eta, ipuin edo olerki "aste" bat-edo antolatzen delako, fondo erosketa garrantzitsu bat ospatzeko, "maleta bidaiari" baten osagarri gisa.

(Ikus. eranskina)

b. Liburutegian ohikoak diren jarduerak

Ikasturte barrenean liburutegian burutzen diren jarduerak dira. Ohiko jarduerak dira, eta hauei esker liburutegia irakasleentzat eta ikasleentzat gune bilakatzen da ikasteko, irakurtzeko, dokumentu iturriak erabiltzeko, eta ballabide zentro bezala erabiltzeko.

- **1. Egunero ireki,** jende guztia irakurketa-gelara joan dadin, gauza ezberdinak egiteko: informazioa bilatu, lanak amaitu, mailegu liburuak hartu eta abar. Eskola orduetan zabalik egongo da, baina horrez gain, ordutegia luzatu behar du goizeko edo arratsaldeko eskola amaitu ondoren.
- **2. Liburuak mailegatzeko** aukera, tramite errazak eginez. Maileguaren bidez liburuak etxean erabili daitezke. Gainera kontuan izan behar dugu badirela etxean liburu gutxi duten haurrak, eta modu honetan, hein batean arazoa konpontzen dugu.
- **3. Irakurgunera taldeka joatea:** tutorearekin, hizkuntzako irakaslearekin, beste edozein arlotako irakaslearekin joatea astean ordu betez, gutxienez. Hau baino gutxiago ez da gomendagarria. Haurrek badute askasun osoa euren gogoko liburuak aukeratzeko eta nahi izanez gero aldatzeko ere bai. Egun batean liburuak izan daitezke, beste egun batean dibulgazio aldizkariak edo komikiak, prentsa, ezagutza liburuak, eskola aldizkariak, ikastetxeko argitalpenak, eta abar.
- **4. Irakasleak ozenki irakurtzea:** ipuinak, olerkiak, prentsako berriak, eta abar. Egunero... esnea edaten dugun bezala edo jolastorduan ogitartekoa jaten dugun

bezala, halaxe egin behar da, besterik gabe, bakarrik entzuten egon eta norbaitek nahi badu, komentarioren bat egin.

- 5. **Irakur bizipenen trukea, hitzaldiak.** Haur bakoitzak dagokion astean irakurri duen bere azken liburua azaltzen du, eta bere ikasgelakideei zer edo zer oparitzen die, berak egina eta liburuarekin zerikusia duena: poster txiki bat, marrazki bat, olerki bat, esku lan bat. Gelakideek liburuaz galdetzen dute. Maisuak eta maistrak ere jarduera honetan parte hartu beharko dute, eta kontatuko dute irakurritakoren bat.
- 6. **Mahai-inguruak.** 3 edo 4 bat haurrek liburu berbera irakurri dutenean, mahai-inguruak antola daitezke iritziak alderatzeko. Jarduera hau egin ahal izateko, komenigarria da zenbait liburutatik dozena erdi bat ale eskura izatea.
- 7. **Ikaskide guztiek ozenki liburu berbera irakurtzea.** Ikasleek pasarte bana irakurtzen dute. Gero, irakurritakoari buruzko iruzkina, iritzia emango dute, eta irakurketatik etorritako sormenezko jarduerak egin daitezke. Liburu horretatik film bat egin baldin bada, irakurketa egindakoan, filma ikusten da eta literaturako hizkuntza eta zinematografiakoa elkarren aldean jar daitezke. Honez gain, norberak liburuaz izan duen esperientzia irudimentsua alderatu daiteke film-zuzendariak egin duen interpretazioarekin.
- 8. **Irakurketa bultzatzea beste formatu informatibo batzuetan:** prentsa, aldizkari zientifikoak, zenbait egunkaritako haurrentzako gehigarriak... tresna informatikorik izanez gero, CD-roma material gisa erabiltzea kontsulta informatiboak egiteko.
- 9. Olerkia, liburuak, ipuinak eta abar **errezitatzeko edo antzetzeko ekintzak sustatzea** gelako gainerako ikaskideen aurrean. Errezitaldiak edo irakurraldiak prestatzea, talde txikiei zuzenduak, liburutegira entzutera joaten direnerako.
- 10. **Multzokako liburu maileguak** bultzatzea, liburutegitik ikasgelara liburuak eramateko, eta modu honetan liburu berriak ikasgelan sartzeko; liburuak izan daitezke irudimentsuak edo plazerrezkoak, edo natur zientziei, historiari edo abarri buruzkoak.
- 11. **Maleta bidaiariak** prestatzea, berariazko liburuak gelaratzeko: gai jakinak, liburu berriak, ongi irudiztatutako liburuak, egile jakin baten liburuak, ikastetxe osoan lantzea erabaki den gai jakin bati buruzko liburuak.



c. Kultur sentsibilizazioko ekintzak eta eskola erkidegoa partaide bihurtzeko ekintzak

Liburutegia kultura sustatzeko tokia izango da, eta gainera, liburu berrien, prentsako materialen, posterren erakusketa txikiak egingo dira, askotariko informazioa eskainiko du, eta liburutegia, azkenik, bultzatzailea izango da hainbat kultur ekintza interesgarri burutzeko.

Honetarako, ekintza batzuei ekin behar zaie, hona hemen:

- 1. **Liburutegian berri-taula egokitua izatea**, eta bertan denetariko berriak ematea, liburak direla, irakurketa dela, idazleak direla, literatur sariak direla, urteurrenak direla eta edozein kultur ekintza dela.
- 2. **Eskolan egiten diren argitalpenak** (olerki liburutxoak, gelako aldizkariak, monografiak eta abar) **erakusteko** tokiak sortu. Liburutegian atal bat izatea, ikastetxean egiten diren argitalpen guztiak artxibatzeko.
- 3. **Prentsako dossier monografikoak egitea hainbat gairi buruz**: gaur eguneko egileak, hainbat arrazoiengatik albiste bihurtu diren egileak, prentsatik ateratako liburuei buruzko berriak, irakurketa, liburutegiak, idazleak eta abar. Ageriko toki batean erakutsiko dira, irakurtzeko eta kontsulta egiteko.
- 4. **“Asteak”, erakusketak eta abar egitea**, eskolako liburutegitik antolatuta; modu honetan liburutegia toki dinamiko bilakatuko da, eta beti ere interes handiagoa sortuko du ikastetxeko ikasleen eta irakasleen artean. Jarduera hauen abiapuntuak askotarikoak izan daitezke: olerkia, ilustrazioa, zinea, ipuinak, bidaiak, naturguneak, pakea eta tolerantzia, eta abar.
- 5. **Ipuin kontaketak egitea**, honetarako, langileria espezializatua, gurasoak, aiton-amonak eta ikastetxeko langileria lagungarriak izan daitezke. Goi kurtsuetako haurrek saio ezberdinak presta ditzakete haurrentzat: kontakizunak direla, errezitaldiak direla, antzezpina dela.
- 6. Liburutegira sartzen diren **liburu berriak aurkezteko toki bat izatea**. Aldiro-aldiri liburu berriak ekartzea garrantzitsua da liburutegia sorpresaz zaharberritzeko.
- 7. **Liburutegiko toki ezberdinetan “irakurketa aipamenak” jartzea**; honako hauek liburutegiko zenbait liburutako pasarte esanguratsuak dira, eta erabilgarriak izan daitezke haurrek erreferentzia horien liburuak bilatu eta irakur ditzaten.
- 8. **Posterrak prestatzea**, aldizkari eta egunkarietatik ateratako argazkiak erabiliz, non pertsonak ageri diren irakurtzen, liburu apalategien aurrean, liburuak eskuetan dituztela eta abar, irakurtzeko sentsibilizagarriak izan daitezkeenak. Posterretan hauek bezalako esaldiak idatziko ditugu: “Hainbeste pertsonak irakurtzen badute, zerbaitengatik... izango da” edo “Pertsona hauek guztiek badute atzean liburutegi bat, zuk, berriz, aurrean duzu, baliatu zaitez berataz” eta abar.
- 9. **Helduentzako liburu sail bat eskaini, irakasleentzako eta gurasoentzako saila, haurrek ikus dezaten helduak ere liburutegira joaten direla**. Praktika honen balio eredugarria eraginkorra izan daiteke.

- 10. **Gurasoei liburutegia zabaltzeko aukera ematea astean egun batean edo gehiagotan. Haiek liburutegian egotea** eta bertan irakur-animazio lanetan ibiltzea balio handikoa da.
- 11. **Idazteko jarduerak bultzatzea:** Banakako ipuin irudidunak, olerki liburuak, ikastetxeko aldizkarietan laguntzea, ikasgelako egunkariak, zenbait egunkariren eskola-gehigarrietarako laguntzak. Idazketa eta irakurketa elkarri estu lotuta dauden jarduerak dira.
- 12. **Aldizkako argitalpenak erakusteko erakusleihoren bat edukitzea**, non erakutsiko diren eskola aldizkariak, elkartrukeko aldizkariak, harpidetzako aldizkariak. Hauen artxibategia izatea.
- 13. **Herriko haur liburutegiekin eta liburutegi publikoekin elkartrukeak eta harreman onak izatea.** Liburutegien arteko mailegutzak liburuarekiko eta irakurketarekiko giro positiboa eragiten du, batez ere liburutegi publikotik eskola liburutegira egiten badira, eta eskola liburutegiko ekintza batzuk liburutegi publikoraino hedatzen badira.

4 Eta idazketa?

Idazketa eta irakurketa eskutik helduta joango dira. Posiblea da batak bestea eskatzea eta alderantziz. Hau dela eta irakurtzera bultzatzeaz mintzatzen garenean ez dugu ahaztu behar haurrek idatzi ere egitera gonbidatu behar ditugula. Momentu hauetan liburutegia dinamizatzeko ahaleginetan ari garen aldetik, ikusi behar dugu, halaber, zer egin dezakegun idazketa ere bultzatzeko. Beti ezin izango dugu eskolako liburutegitik bultzatu. Ikasgelatik bertatik egiten badugu, saiatuko gara bertan egiten dena liburutegira aldatzen, publikoagoa den toki honetan, nahi duten haur guztiek ikusi ahal izateko.

Hona hemen egin ditzakegun zenbait ekintza:

- 1. **Ipuinak prestatzea**, banaka edo taldeka, euskarri ezberdinetan eta modu ezberdinetan (trokelatuak, erraldoiak, minimoak).
- 2. **Berri koadernoak.** Egunero koaderno batean idatziko dugu ikasgelara eramaten den eta eztabaidatzen den berriaren laburpena. Ikasurtearen bukaeran koadernoak gaurkotasun handiko ohar errepertorio interesgarria bilduko du.
- 3. **Ikasgelako egunkaria.** Astero arduradun batek egunkari bat idatziko du ikasgelan gertatzen diren gertaera eta bitxikeria aipagarrienak bilduz.
- 4. **Eskolako oroitzapenen liburua.** Lehen Hezkuntza bukatzen duten ikasleek ikastetxean iragan urteetan izandako oroitzapenak idatziko dituzte euren koadernoetan. Guztiak bateratuta, biziak beteriko liburu interesgarria osatzen dute.
- 5. **Eskola aldizkariak**, gelakoak, ziklokoak izan daitezke, baita jarduera berritzaileenak biltzen dituen ikastetxekoak ere, tokian tokikoaren berri emateko.
- 6. Aiton-amonen edo gurasoen **oroitzapen liburuxkak prestatzea.** Neska-mutilek haiekin mintzatu ondoren, euren ikerketa lanak erredaktatzen dituzte. Lan

hauek guztiak biltzea argitalpen interesgarria da, bidea ematen baitu (irakurketa bidez) beste garai batera, beste bizipen batzuetara joateko, eta protagonista ezagunekin ibiltzeko.

- **7. Ohitura eta folklore liburuak.** Hauei esker informazioa berreskuratzen da hainbat gairi buruz: herri jaiak nola ospatzen ziren, haur jokoak, ahozko folklorea, sinesmenak eta sineskeriak, gaitzak sendatzeko etxeko sendabideak, herri sukaldaritza eta abar. Hain da luzea zerrenda! Material honekin guztiarekin argitalpen erraz monografikoak egin ditzakegu edo ikastetxeko aldizkarietako orrialde batzuk osatzeko lagungarriak izan daitezke.
- **8. Bidaia liburuak.** Ingurura irtenaldi bat egitea, kurtso amaierarako txangoa, eskulangintzako tailer batera ikustaldia egitea; hauek bezalakoek bidea ematen dute sentipenei eta aurkikuntzei buruz idazteko, zer entzun den, zer ikusi den kontatzeko, eta laborpen liburuxka, oroitzapen liburuxka bat prestatzeko.
- **9. Ipuin eta elezaharren liburuak.** Aiton-amonek ipunak eta elezaharrak kontatuko dituzte, haiei aintzin urteetan kontatu zitzaizkien bezala. Hau guztia bildu eta antolatu ondoren, eta behar bezala irudiztatua, liburu bat edo batzuk prestatuko ditugu.
- **10. Argazki albuma.** Haur bakoitzak bere album pertsonaletik argazki zaharren bat hautatu. Testu batean idatziz kontatu behar du non eta nork egin zuen argazkia, zer egiten zuen han egun hartan, nortzuk agertzen diren berarekin argazkian, zernolako oroitzapenak ekartzen dizkion argazkiak. Lan guztiak azalezatu ondoren, argazki album bat osatuko da idatzita eta komentatuta ikasgelako guztiekin.
- **11. Olerki liburuak.** Errrepara dezakegu zeintzuk diren bildu ditugun formulatxo tradizionalak edo egile ezagun baten olerkietan, eta hauei esker errimara eta erritmorra hurbildu ahal izango gara, eta gainera formulak iradokiko dizkigute geure olerkiak sortzeko. Hautaketa bat egingo dugu, eta gero hautatu horiek irudiztatuko ditugu eta hauekin liburuak fabrikatuko ditugu.
- **12. Azkenik ez ditugu liburu erraldoiak** ahaztu behar. Tamaina handiko liburu hauetan ikasturtean zehar hainbat gauza biltzen joan gaitetzke: gehien gustatu diren jardueren laborpenak, olerkiak, ipuinak, berriak, elkartrukeak, marrazkiak, prentsa puskak... hauek taldekako liburuak kuttunak dira, gelan gertatukoaren agerpenak ematen dituztelako edo ikastetxean denbora jakin batez, hots, ikasturte batez, gertatukoaren berri ematen dutelako.



Badira posibilitate anitz, saioak egiteko eta praktikak egiteko.

Material horiek guztiak arretaz landu ondoren eta behar bezala gratatuta, josita eta azaleztatuta eskolako liburutegiako apalategietara pasatzen dira, eta hauei esker, hots, liburutegiaren erabiltzaileak izan diren batzuen bizipenei esker, liburutegia aberasten da. Oroitzapena gordetzen duten liburuak dira, istorio pertsonalak eta kolektiboak kontatzen dituzten liburuak, eta liburu hauek inoiz ere ez lirateke idatziko, euren protagonistek beraiek idatziko ez balituzte.

5

Kultura sustatzeko jarduerak, eskola liburutegitik bultzatuak


Liburutegia aldiro-aldiro kultur jarduerak sortzeko gune bilakatzen da, eta ikastetxe osoari eragiten dioten jarduerak dira. Behintzat halaxe gertatzea nahi dugu, zeren eta halaxe gertatuz gero ikastetxeko kultur erreferentea bihurtuko litzateke, eta haurrentzat, maisu-maistrentzat eta gurasoentzat interesgune bihurtuko litzateke.

Urtean jarduera bat edo bi antolatzeraz ausart gaitzeko, beti ere ikastetxearen arabera, liburutegiko arduradunen taldekideen arabera, liburutegiko irakasleek hartzen duten konpromisoaren arabera eta beste zenbait eragileren arabera. Jarduera hauek aste betez edo hamabost egunez edo hilabete batez ikastetxe osoari aukera eman behar diote, langaia sakon aztertzeko, erakusketa bat egiteko materialak prestatzeko, aukeratutako gaiari buruz liburutegiak eskaini dezakeena bisitatzeko, curriculum materialak prestatzeko, liburu edo aldizkari monografikoak argitaratzeko eta abar.

Jarraian abiaraz ditzakegun ekintza batzuk (asteak, erakusketak eta abar) kontatuko ditugu, eta ekintza hauetan liburutegia prestatu den guztiaren sortzailea edo hartzailea da (erakusketa handi batean), eta hori guztia azkenean erakusten da, eta modu honetan eskola komunitate osoak konpartitu dezake. Oso garrantzitsua da ekintza hauek prestatzerakoan ikastetxearen osotasuna aintzat hartzea, eta hautatuak eta planteatuak izan daitezela ikasmaila guztietan aprobetxatuak izan daitezen: Haur Hezkuntzatik (hiru urte) Lehen Hezkuntzako 6.eraino (Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastexeeetan) eta DBHko lehen ikasmaitatik Batxilergo amaieraraino (Instituetan).

Ekintza hauek aintzat hartzen dute kultur urteurrenen bat, olerkia, ipuina, ilustrazioa, ahozko haur folkloreak berreskurapena, ipuin idazketa, pakea, idazleren baten heriotza, prentsa, komikiaren mundua, zinea eta abar. Askotan tratamendua diziplinartekoa da, hargatik hainbat gauza egin behar dira: irakurri, idatzi, marraztu, koloreztatu, irudiztatu eta sortu, eta bidenabar, askotariko materialak erabili.

Muntaia hauei esker material berriak sortzen dira, gogoetabidea ematen dutelako aztertzeko liburutegi bateko fondoak aski diren edo osatu behar diren edo gaurkotuta dauden eta abar, eta modu honetan, erosketak berriak egiteko bidea ematen dute. Animatu nahi ditugu bai gurasoak, bai edozein publiko mota, erakusketak ikustera joatera.



**Komikiaren
astea**
(Komikiarekin zerikusia
duten erakusketa eta
lanak)

- Komikien erakusketa.
- Komikietako pertsonaiekin zerikusia duten filmak ikustea.
- Komikigintzak sortutako pertsonaia ezagunenak tamaina handian marraztea.
- Istoriotxoak sortzeko berariazko lanak.
